



## **EKAINAREN 1EAN HASIKO DA HONDARTZA DENBORALDIA, OSTIRALAREKIN**

- Olanak eta bainualdi lagundua, 15a arte zain

Datorren ekainaren 1ean izango dute estreinaldia Donostiako hondartzek. Zerbitzu guztiak abian jarriko dituzte, olanak, itzalkinak eta bainualdi lagundua izan ezik, 15ean hasiko baitira horiek.

Hondartzen ardura duen zinegotzi Miguel Angel Díezek adierazi duenez, “aurten oin garbitoki gehiago izango dira. Kontxan, Ondarretan eta Zurriolan (2) egongo dira, azken urteotan jarritakoei gehituta”.

Hondartzak urte osoan garbitzen dituzten arren, udaldian zerbitzu orduak egokitu egiten dira. Hala, gauez galbahetzen da hondarra, 10:00ak arte, makinek erabiltzaileak gogaitaraztea galarazteko. Ordu horretatik aurrera, eskuz garbitzen dute hondartza: zakarrontziak hustu, pasealeku irtena eta hondartza sarbideak eskobatu...

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

Gainera, gabarroiak ere txukuntzen dituzte, kaioen pausalekuak izateagatik, zikin egoten baitira. Bestalde, bada txalupaz egiten den zerbitzu bat: uretako hondakin flotagarriak jasotzekoa. Guztira, 25 lagunek osatzen dute egunero hondartzak txukuntzeaz arduratzen den lantaldea. “Zertan esanik ez, gure hondartzak behar bezala egotea denon eginkizuna dela. Egunero txukuntzen ditugu, baina erabiltzaileek ere arduratu behar dute hondartzak zaintzeaz eta ez zikintzeaz, zakarrontziak erabilia eta besteei eragozpena eragin diezaiekeen ezer bota gabe”, zehaztu du Miguel Angel Díezek.

Gurutze Gorriaren sorospen zerbitzua ere hasiko da ekainaren 1ean. Ekainaren 1etik 14a arte, eta irailaren 1etik 30a arte, goizeko 10:30etan hasiko da, eta arratsaldeko 19:30etan amaituko. Denboraldiko gainerako egunetan, hau da, ekainaren 15etik irailaren 15era, goizeko 10:00etan hasiko dira lanean sorosleak, arratsaldeko 20:00ak arte. 22 sorosle daude guztira, haietako 7k Kontxa hondartzan ematen dituzte zerbitzuak; 6k, Ondarretan eta San Klara uhartean, eta, 9k, Zurriolan. 22 sorosle horiezaz gain, 3 arduradun daude (1 hondartzako), 3 ontzi patroiz eta koordinatzaile nagusi bat. Guztira, 29 pertsona.

Eutsi egin die Udalak hondartzetako ohiko gainerako zerbitzuei. Aldagelak zabalik egoten dira ia urte osoan, eta ordutegi zabalagoa izango dute hondartza denboraldian: ekainean eta irailean 09:00etatik 20:00ak arte egongo dira zabalik, eta uztail-abuztuetan, ordu erdi gehiagoan, 20:30ak arte.

Diezek adierazi duenez, ekainaren 15etik aurrera, eskura egongo dira olanak eta eguzkitakoak. “Guztira, 1.400 olan, karpa eta itzalkin dira, hiru hondartzen artean. Egun, guztiek ez dute esleipendunik, hortaz, hondartzara doan edonork eskura dezake eman gabe dagoenetako bat, denboraldi osorako ala egun bakarrerako alokatuta. Honela daude banatuta olan eta itzalkinak:

- Kontxa hondartzan: 440 olan
- Ondarreta hondartzan: 424 olan  
198 itzalkin  
98 karpa
- Zurriola hondartzan: 240 olan

Udaletxean zozkatu zituzten, eta, maiatzaren 28tik aurrera, zuzenean saltzen hasi dira eman gabe geratu diren olanak. Zozketaren ondoren, 2 olan geratu ziren eman gabe Kontxan, 20 itzalkin Ondarretan, eta 26 karpa eta 155 olan. Zurriola hondartzan, 92 geratu ziren esleitu gabe. Zuzenean saldu ahala, aldatuz joan dira datuak.

Ekainaren 15ean hasiko da bainualdi lagundua Kontxa hondartzan, abuztuaren 31 arte, 11:00etatik 19:30ak arte, etenik gabe.

### **BESTE ZERBITZU BATZUK:**

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



**ZURRIOLA HONDARTZAN:** Tintin elkarte (900 m<sup>2</sup>), hamakak (600 m<sup>2</sup>), izozki kioskoa (10 m<sup>2</sup>), boleibol zelaiak (512 m<sup>2</sup>) eta terrazadun edaritegia (20+40 m<sup>2</sup>).

**KONTXA HONDARTZAN:** egunero alokatzeko aulki eta olanak, izozki kioskoa (10 m<sup>2</sup>).

**ONDARRETA HONDARTZAN:** piraguak (30 m<sup>2</sup>), Tintin elkarte (600 m<sup>2</sup>), terrazadun edaritegi kioskoa (20+40 m<sup>2</sup>), mendebaldeko edaritegi kioskoa (20+40 m<sup>2</sup>).